



1. "Etxean kontu-kantari"

Gaurko sailkapenak gehien bat jolasaren alde egiten du. Haur poesia, gehienetan, mugimendua, kantua eta jolasari lotzen zaio. Era horretako sailkapen bat ekartzen dugu honetara. Hala, haur txikiekin egin daitezkeen jolasak proposatzen ditugu: "Txalo-txalo txalotxin" eta "Txilin-txilin..." eskuen arteko koordinazioa eta gorputzaren eitearekin batera, barrea, kili-kiliak, laztanak... 0-4 urte bitartekoentzat oso egokiak dira biak. "Makarron makarron txufa" eta "Ni ez naiz xomorroa" mugimenduzko jolasak ekartzen dizkigute: zotz-egin, nori tokatzen zaion erabaki eta oilo itsuaren jolasean zein izango den erabaki. Izan ere, kantua, mugimendua eta jolasa dira haur poesia. Gaurkoa bukatzeko ipuin ospetsu baten euskal bertsoia ezagutzeko aukera eskaintzen dugu: "Errotarien ondasunak". Denak biltzen dira "[Etxean kontu-kantari](#)" atalean. Ongi pasa!!!

2. "Ipuinez ipuin"

Haur txikiek kezka handiak dituzte eta, garai batetik aurrera, azalera ateratzen dituzte, pertsonaia desberdinei beren asaldaduraren arazoia leporatzen dietelarik: mamua, otsoa, tigrea, sakamantekas... Emozio beraren adiera desberdinak: beldurra. Ikusi *Beldurra ez da izua*. Aurreko testu hau Jonas eta Hozkailu beldurtia ipuinari idatzitako aurkezpen bat da, klikatu eta erabilpen proposamen bat aurkituko duzu. Ipuin honek ondo islatzen du haur txiki baten emozioa eta horren gainean eraikitzen duen azalpen logiko-fantastikoa. Tradiziozko ipuinetan, gai hau maiz erabili ohi da: *Hiru txerritxoak, Zazpi antxumeak eta otsoa*... Ipuin hauetan otsoak jaten ditu bakarrik geratzen diren txiki horiek. Egun, bukaerak leuntzeko joera dago, baina gure proposamenean azpimarratzen dugu beldurra sinbolizatzen duen pertsonaiaren izaera mantentzea... Mamua ez da inoiz txintxoia, aldendu arazten dugu, uxatu egiten dugu, ez dagoela konturatzen gara, baina ez gara harekin geratzen elkarrekin meriendatzeko.

Abrite portas, klis-klas!

3. "Gela barnean"

Gela barneko biblioteca txiki bat antolatzea ez da zaila, ez da garestia. Liburu sailkapen on bat egin behar da, liburuak ondo aukeratu ondoren. Poesia liburu, ipuin bildumak eta album ederrak gomendatzen ditugu. Behin eta berriz, bibliotekak hornitzeko proposamen erakargarriak luzatzen ditugun bitartean. Baina gaurkoan, informazio liburuak gomendatzen dizkizuegu; koloreak, formak eta animaliak dituzte liburu hauek hizpide. Besteetan bezala, ilustrazio erakargarriak erakusten dituzte, eta informazio anitza eskaintzen dute kontzeptuen aukera zehatzarekin batera, baina iradokizunari, irudimenari eta haurren bizipenei bidea irekiz. [Gelan gozatzeko!](#)

4. "Egitasmoa martxan"

Ikastetxe eta liburutegietan egoteaz gain, egitasmoa osasun zentroetan bere itzala uzten hasi da. Besteak beste, Abusuko Osasun Zentroko pediatra eta erizainek errezeta literarioak banatzen dizkiete kontsultara hurbiltzen diren hurrei. Hauek, errezeta eskuan dutela liburutegira doaz, bertan espezialistaren gomendioak behar bezala jarraituz. Parte hartzaileak pozik azaldu dira ekimenarekin eta, Bularretik Mintzora izan duen harrera ona ikusita, datorren ikasturtetik aurrera Euskal Autonomi Erkidegoko beste osasun zentro batzuetan martxa hasiko du honek. Honetaz gain, Osakidetzako sarean dauden zentro guztiek Bularretik Mintzora aplikazioa erabili ahal izango dute. Hala, bertan agertzen diren adierazleak aztertzeke aukera izango dute haur bakoitzaren osasun fitxan gordetzeko. Berri onak, beraz, udaberria gozatzen jarraitzeko.